

MORETIK HARATAGO

Irma Arabaolaza
Nahia Badiola
Daniela Holguin
Nerea Sarriegi
Imanol de la Varga

Nola lortu gizona inplikatzea? Zein izan beharko litzateke gizonaren papera? Noiz arte izango dabiktima bat biktima? Arazoa izan al daiteke konponbidea? Nola lortu zuloatik irtetzea? Eta ondoren, zer? Nolakoa izango da osteko bizitza? Zer paper jokatu behar du hezkuntzak? Zein paper izan behar dute erakundeek?

**Galdera asko
erantzunik gabe**

Erreportajea
aipatutako erakundeen
kontaktuak eta beste
kontaktu baliagarri
batzuk:

OsaNatur:
943 58 20 71
688 67 41 74

Urratsez urrats:
24 orduko arreta:
900 84 01 11

“Indarkeria sukarra baino ez da. Berdintasun eza da gaixotasuna”

Sei. Itxuraz zenbaki bakarra badirudi ere, esanahi krudela du atzetik. 2015ean sei emakume erail zituzten beraien bikotekideek edo bikotekide ohiek Euskal Herrian. Espainian 57. Frantzian 118... Zer dago, baina, zifra horien atzean? Estatistikak dira, bai, baina zer dira ba, estatistikak, errealitatearen argazki bat baino ez badira? Gurasoen, seme-alaben, lagunen, ezagunen, bizilagunen... sufrimendua islatzen dute. Guztiek sufritzen dute inguruko pertsona baten sufrimenduarekin, eta are gehiago justifika ezina denean.

Baina, zoritxarrez, ohitu egin gara eta gure harridura zenbakietara mugatzen dugu. Zorigaitzaren oihartzunak irauten duen bitartean, etengabeak dira “emakume gaixo” baten kasuaren irudiak albistegietan. Bi egun horiek pasa ostean, ordea, zifren multzoan sartzeko txartel dohaina irabazten du emakume horrek. Ohitu gara berdintasun faltara, ohitu gara tratatu txarretara, ohitu gara behin eta berriz eraildako emakumeen berri izatera. Ohitu gara.

Eta bidegabeko ohitura horien barruan, hutsune bat dagoela jabetzea zaila egiten zaigu. Hedabideek kasurik gogorrenak



erakusten dizkigute: indarkeriarik latzena jasan duen emakume baten istorioa, eraila izan den arte. Baina, atzetik, guretzako ikusezinak diren ehunka kasu daude. Eta, zoritxarrez, ikusezinak dira erailak izan ez direlako. Emakundeko iturriek diotenez, tratatu txarren kasuen %75aren inguruan erakundeek ez dakite ezer. Baina emakume horiek ere

**“Estatistikak,
errealitatearen argazki
bat baino ez dira.”**

jasan dute arazoak suposatzen duen gaitz erraldoia. Batzuek aurrera pauso bat emateko kemena izan duten arte.

Horrela, prozesu luze bati emango diote hasiera, epaiketaz epaiketa, amesgaiztoaren irteera bilatuz. Orduan, tratatu txar horien eragileak zigorra jasoko du eta biktima askea izango da. Baina, zein puntutaraino izango da libre? Noiz arte izango da biktima? Nolakoa izango da emakume horren bizitza une horretatik aurrera? Nolakoa izango da bere “birgizarteratzea”? Galdera mordoa, erantzun gutxi.

Eta ondoren, zer?

“Indarkeria erabili duen gizon batek bere zigorra betetzen duenean, gaizkile izateari uzten dio. Indarkeria jasan duen emakume batek ordea, betirako izan behar al du biktima? Zergatik?”. Indarrez, dardar egin gabe, galdera hori bota zuen Nereak. Nerea, Raquel bezala, urteetan “maitasunaren” (sasi-maitasunaren) alderik ilunena ezagutu zuen emakumea da. Biak Tabakaleran azaroaren 23an ospatu zen “Hitza ematen dut” proiektuan ezagutu genituen. Proiektuhonek “hitza” duerdigune, Miren Elgarrestaren, Gipuzkoako Aldundiko Berdintasun saileko zuzendariaren, esanetan; “hitza gizarteko arazoak eraldatzeko tresna egokiena baita”. Bi emakumeak Eibarko “Andretxe”

edo “Mujeres al cuadrado” elkarteko kide dira. Elkarrekin honen genero biolentzia jasandako emakumeei laguntza eta orientazioa eskaintzen die.

Hitzen tartean, egi trinko eta garrantzitsu bat azaleratu zuten bi emakumeek. Tratu txarrak jasan dituen emakume batek ez dio inoiz biktima izateari utziko gizarteak ez badio paper hori kentzen. Biktima “biktimizatzea” da, hain zuzen, biktima izatera bultzatzen duen gaitzik handiena.

**Beraien
sufrimenduaren
eragilea kondenatua
izan zen egunetik,
biktima izateari utzi
zieten.**

Beraien sufrimenduaren eragilea kondenatua izan zen egunetik, biktima izateari utzi zioten Nereak eta Raquelek. Hala ere, emakume gehiegi daude oraindik biktima sentitzen direnak, biktima-ohi izan beharko lirakeenean. Eta horren atzean, bi egoera nagusi daudela salatu zuten. Batetik, hedabideek ikuspegi lizunarekin eta amarrutsuarekin lantzen dituztela gai hauek: “zenbat aldiz jotzen zintuen egunean?”, “zein izan zen eman zizun kolperik mingarriena?”, “ikusten al zituzten zure seme-alabek indarkeri egoerak?”, “beldur zara oraindik ere?”. Galdera horiek guztiek efektu mingarria dute beraientzat, ez baitiete bidea irekitzen birgizarteratzera: gizarteko “beste pertsona bat gehiago” izateko. Gaingitze istorioa oroimenera ekartzeko garrantzak diren kontakizunengatik estalita geratzen denean, emakume horrek biktima izaten dirau.

Bestalde, gizartearen konplizitate falta salatu zuten. Raquelen eta Nerearen hitzetan, errehabilitazio prozesua oso zaila izango litzateke akonpainamendu sendo bat egongo ez balitz. Laguntza horrek gizartetik eta erakundeetatik etorri beharko luke, emakumeari bere emozioak kudeatzeko bitartekoak eman behar baitzaizkio. Erakundeei dagokionean, badaude lan hori betetzen duten zerbitzuak; tamalez, gizartea epel samar ageri da oraindik ere auziaren aurrean.



Erreportajea
aipatutako erakundeen
kontaktuak eta beste
kontaktu baliagarri
batzuk:

OsaNatur:
943 58 20 71
688 67 41 74

Urratsez urrats:
24 orduko arreta:
900 84 01 11

Erakundeetako zerbitzuei begira, Nereak eta Raquelek hiru zerbitzu nagusi aipatu zituzten, askoz gehiago badira ere. Haietako bat, *OsaNatur*. Beraien hitzetan, “sendatzen” lagundu dituen elkarte da. *OsaNatur* “gizakiaren eta naturaren adiskidetzatza lortzeko asmoarekin eta esperientzia eta ikerketaren bitartez, natura, animalia eta giza-portaera besarkatuz ezaguerak sortzen” dituen elkarte da. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko psikologia-zerbitzua ere aipatu zuten eta baita Eusko Jaurlaritzako *Urratsez urrats* proiektua. Proiektu honek baliabide zehatzak eskaintzen dizkio emakumeari, erreferentziaren bat eduki dezan eta, gutxienez, zer alternatiba dituen jakin dezan.

Hala ere, laguntza guztia gutxi da gure gizarteak sortu duen zulo larri hau estaltzeko. Izan ere, bi emakumeek ondorio kezkarri bat mahaigaineratu zuten: indarkeria sukarra baino ez da, berdintasun eza duen gizarte gaixo batean.

Arazoaren eragilea, arazoaren konponbidea?

Mendez-mende, belaunaldiz-belaunaldi, elur pilota baten gisara hasiz joan den arazo baten aurrean gaude. Berdintasun faltaren iturburua ezin da iraganeko puntu jakin batean finkatu. Jaiotzen garen unetik rol batzuk esleitu izan zaizkigu,



Miren Elgarresta. Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasun zuzendaria

“Arazoaren sortzailea izan daiteke arazoaren konponbidea”

sexuaren arabera; sexu organoen arabera. Gizarte garaikidean ere eskema horretatik irten gabe jokatzeko duen gizona. Gizonak gogorak, indartsuak, ausartak, aseptikoak omen; emakumeak aldiz bihozberak, bigunak, maitakorrak. Rol bereizketa hutsa arazoa izanik ere, auzia ez da horretara mugatu. Izan ere, rol bakoitza estatus maila jakin batekin lotzen da, jarrera batzuei prestigio gehiago ematen diegu, gizonetzkoen rola izanik ia beti abantailadunak. Ez da ba garaia, beraz, rol hauekin hausteko?

Zein da lehen urratsa emateko ahaldua?

Ander Bergara azaroaren 20an ezagutu genuen, Bilboko Eusko Jaurlaritzako egoitzan. Itxaropenez beteriko hitzak aurkitu genituen berarekin partekatu genuen elkarrizketan. Eta ez da gutxiagorako, izan ere, ia 20 urte daramazki Emakunden aholkularitza lanean, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzen helburua burutik kendu gabe. Gaur egun “Gizonduz” proiektuaren koordinatzailea

**Tratu txarren
biktimei arreta:
016**

Donostiako Emakumeen etxea:
943 48 34 70
info@donostiakoemakumeenetxea.com

da, hau da: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean gizonen paperaren garrantzia azpimarratzen duen programa. Helburua gizonezkoa auzian inplikatzeko da. Bergararen aburuz, rolen eta estatusen banaketa da arazoaren pizgarria, estatus ezberdintasunak zapaltzaile eta zapalduen jokoa baitakar.

Diskriminazioaren oinarrian aurrezarritako rolak daudela kontsideratzen du. Ez da bakarrik jaiotzen garen momentutik dugun mezu edo kolore simple baten existentzian ezberdintasunak daudela, baizik eta, arazoa, batzuk besteek baino balio handiagoa hartzen dutela da. Normalean gizonak egiten duten oro baloratuagoa dagoela kontuan hartuta, Gizonduzetik planteatzen ari direna emakumeentzako eta gizonentzako hobe izango den

gizarte berri bat da. Horrek, gizonak zenbait pribilegio galtzea suposatuko luke. Pribilegio horien galera guztiz aberasgarria litzateke, abantaila ugari etorriko bailirateke beste bide batzuetatik.

Hala ere, horretarako pentsamolde aldaketa bat beharrezkoa da, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait. Pauso handiak ematen ari dira jada, baina hala ere, oraindik asko gelditzen da, diskriminazioa ez baita ikusten. Askotan emakumeak ez dira kontziente diskriminazioa sufritzen dutenik, ezta gizonak zenbait pribilegioren jabe direnik ere. Munduko lider gehienagoak, - bai lider ekonomikoak, erlijiosoak, politikoak, kulturalak, filmetako izarrak, abeslari entzutetsuak...- gizonak dira. Baina konturatu ere ez gara egiten.

Etxe barruan ere gizonak baditu hainbat pribilegio. Bergarak dioenez, etxeko lanak egiten dituzten %72a emakumezkoak dira. Lan horiek egiteak egundoko ondorioak dakartza emakumezkoentzat. Lan munduko aukerak, hala nola, murriztu egiten dira. Eta etxe barruan berdintasuna lortzen ez den bitartean, etxetik kanpo ere ez da lortuko. Tolerantzia handia dago; hainbat jarrera edota gertaera normaltzat hartzen ditugu, baina horiek matxismo sutila dira askotan.



“Gizonok alde batera utzi behar ditugu gure pribilegioak”



Ander Bergara. Gizonduz ekimenaren koordinatzailea

Erreportajea
aipatutako erakundeen
kontaktuak eta beste
kontaktu baliagarri
batzuk:

OsaNatur:
943 58 20 71
688 67 41 74

Urratsez urrats:
24 orduko arreta:
900 84 01 11



“Rolek hor jarraitzen duten bitartean, emakumeak indarkeria jasateko arrisku gehiago izango du”.

Tratu txarren arloa hurbiltzen bagara, erakunde askoren helburua da eskubide berdinak izatea, baina rol horiek jarraitzen duten bitartean emakumeak indarkeria jasateko aukera gehiago izango du. Sufrimendu hori jasan duen emakume baten birgizarteratze prozesuan beraz, badago orain arte alboratu samar egon den eta kontuan hartu beharrekoa den pieza garrantzitsu bat; pieza hori gizona izango litzateke. Bergararen aburuz, gizonak bete behar duten papera ezinbestekoa izango da egoera

hauetan. Gizonak pribilegioei uko egiten dien unean, aukeraz betetako etorkizuna zabalduko da.

Batzuetan pentsatu izan da tratu txarrak jasan dituen emakume batek mesfidantza izango duela gizonekiko, gizonengan ikusiko baitu bere erasotzailearen irudia. Baina arlo honetan lanean darabilten ahotsak bat datoz hitz hauek ezeztatzeko orduan. Gizonezkoei ezin zaie talde bereko kide uniforme gisa definitu, noski. Hau horrela, auzi honi aurre hartzeko prest dauden gizonen papera aldarrikatzekoa

da. Elgarrestaren hitzetan, “Gizonen paperean badago arazoa, beraiengandik ere etorri behar da konponbidea; ezin da gizonaren papera ahaztu”. Jakina da tratu txarren zulentatik irteta ez dela batere erraza. Askotan emakume bakoitzaren egin beharrekoa dela pentsatzen bada ere, ideia horrekin hautsi beharra dago. Auzi hau gizartearen auzia izanda, pertsona ororen ardura da egoera horretan dagoen emakume bati lagundu eta babesa ematea; eta hor gizonen kolektiboak berebiziko papera izan dezake. Egoerak entzun, ulertzen saiatu eta bidean aurrera egiten laguntzeko makulu ona izan daiteke. Are gehiago, beharrezkotzat ere jo izan da gizonaren babesa. Bergararen ustez emakumeek *shock* momentutik errekupeatzeko laguntza behar dute, eta gizonak alboan izatea emakumea lagun dezake kolektibo honekiko izan dezakeen beldurrak uxatzeko. Beraz, gizonak “gizonaren rolak” alde batera utzi eta eredu izan behar du, emakumeei eta, oro har, gizarteari erakutsiz zein izan beharko litzatekeen pertsona zintzo baten benetako papera.

“Etxe barruan berdintasuna lortzen ez bada, etxetik kanpo ere ez da sekula lortuko”

Galdera asko, erantzun mugatuak

Baina nola lortu gizona inplikatzea? Galdera zaila da, eta erantzun eraginkorrik edo zehatzik gabekoa. Argi dago hezkuntza beharrezko lanabesa dela bide horretan. Nahikoa izan ez bada ere, auzi honi aurre egiteko neurri gehienak bide honetatik etorri dira.

“Inor ez da jaiotzen gorrotoa zainetan daramala. Gorrotatzen, ez errespetatzen, tratu txarrak ematen... ikasi egiten da”.

Injustizia hauen aurrean, justizia eskatzen dugu behin eta berriz. Tratu txarren edo heriotzaren eragilea epaitu eta kartzelan sartzearekin pozik geratzen garela dirudi, arazoa bukatua bailitzan. Baina ez gara konturatzen bidegabekeri horren sortzaile eta zabaltzaile ere bagarela. Zoritxarrez, horrelako kasuak egunero ikusten ditugu gure gizartean. Miren Elgarrestaren hitzetan: “Inor ez da jaiotzen gorrotoa zainetan daramala. Gorrotatzen, ez errespetatzen, tratu txarrak ematen... ikasi egiten da. Beraz, maitatzen eta errespetatzen ere ikasi egin daiteke”. Hezkuntza da gakoa. Eta hori denon ardura da.

Erreportaje hau online, eta beste gizarte auzi batzuen inguruko erreportaje gehiago, ondorengo helbidean:



Eskaneatu QR kodea edo jo onderengo lotura honetara:

<https://retos1.deusto.es>

Editoriala

Hitzen garrantzia

“Kontuz etxera itzultzean, ez etorri bakarrik”. “Ez joan ezagutzen duzun lehenengoarekin”. “Eta betiko bidetik itzuli. Ez sartu argirik gabeko tokietatik”.

“Nora zoaz hain apainduta?”

“Kuadrilakoekin pasa gaua, ez zaitetz galdu”. “Galduz gero, deitu, joango gara bila”. “Kontuz alkoholarekin”. “Edalontziarekin kontuz”. “Norbaitek telefono zenbakia eskatuz gero, ez eman. Ez dakizu ero horietakoren bat den edo ez”...

Euskal Herrian, sei biktime eraman zituen 2015ean indarkeri matxistak. Ziurrenik, haiek ere jaso zuten, nerabezaroan, amaren hitzaldia. Kontuz ibiltzeko, bakarrik ez geratzeko, “ero horietako baten” beldur. Semeari, ordea, hitz ezberdinak: “inorrekin istilurik ez”, “gehiegi ez edan”, “drogarik ez”, “neskekin ibiliz gero, protekzioa erabili”. Nahi gabe, gure hitzek eraikitzen dute gure sistema. Mutilei, borroketan ez sartzeko. Neskei, ordea, edozein eraso jaso baino lehen, babesteko. Ez al dugu pentsatu behar aldaketaren giltza diskurtsoaren moldaketan egon daitekela? Neskak erasotutak ez izateko hezitzen baditugu, mutilak ez erasotzeko hezitu beharrean, gure gizartetan ez da inongo aurrerapausorik emango.

